




▼ ASTIGARRAGA



Abraham Olano txirrindulari anoetarrak zabaldu zuen atzo txotx denboraldia, Bereziartua sagardotegian.

Jon URBE | ARGATZI PRESS

## «EMAN DIEZAI OGUN HITZA SAGARDOARI!»

**Txotx denboraldiaren**

**irekitze-ekitaldia**

**egin zen atzo, eta**

**2002ko uztako lehen**

**tragorako lasterketan**

**Abraham Olano izan**

**zen irabazle. Orotara**

**13,5 milioi kilo sagar**

**erabili dute zuku**

**prezlatua egiteko, eta**

**horietako asko apirila**

**arte zabalduko diren**

**sagardotegletan**

**edango dira.**

Kristina MARTIN

**E**man diezaiogun hitza sagardoari!», esan zuen atzo Abraham Olano txirrindulariak, 2003ko sagardotegien garaia zabalteaz arduratu den lagunak. Urtero legez, aurten ere Euskal Herriko pertsonaia esanguratsu bat omendu dute irekitze-ekitaldian. Olanok berak aitortu zuenez, behin baino gehiagotan gonbidatu dute, baina lasterketak prestatzen buru-belarri aritu ohi delako, uko egin behar izan dio. Atzo, ostera, zorrak kitatu zituen, eta sagardoaren zukua edateari ezin gogotsuago ekin zion.

Aurtengo inaugurazio-ekitaldian, Joxemiel Bereziartuaren dolareak lekukoa hartu dio Petritegi sagardotegiari. Azken urteotan hor egin da, baina hemendik aurrera txandakatuko dira herriko sagardotegiak.

Atzokoia egun garrantzitsua izan zen, bai sagardotegientzat baita herri osoarentzat ere, apirilaren amaiera arte, bertakoen eta kanpokoen bisitaldiek bizitasun itzela emango baitiote herriari. Izan ere, jende ugari irrikan espero du denboraldiaren hasiera, lagun edo lankideekin elkartzeko aitzakia edukitzea. Dagoeneko erreserba asko egin dira astebururako.

Aurten 13,5 milioi kilo sagar erabili dute sagardo egiteko. Kilo horietatik sei milioi inguru Gipuzkoan ekoizti dituztela esan zuen Jon Mikel Muruak, Nekazaritza diputatuak. «Goierriko uza azken urteotako ugariena izan da», zehaztu zuen.

Eskaera, baina, gero eta handiagoa da, eta horri aurre egiteko kanpotik ere ekartzen dute

sagar kilo mofdoak. «Normandiatik, Britainiatik eta Galiziatik», argitu zuen Jose Angel Goñik, sagardogileen ordezkariak.

Eskaera handia da, eta kontsumitzaileak zorrotzak. 2002ko uza, adibidez, kalitatezkoa izan dela baietsi zuen Goñik. «Uza aurreratuta etorri zaigu; sagarrak iaz baino lehorragoak dira, eta azukrea erabat janda dute», adierazi zuen.

Eguraldiak eragin zuzena dauka kalitatean, eta horregatik, sagardogileek arreta handiz begiratzen diote zeruari. «Iaz negu hotza egin zuen, eta arbo-

lak atsedean hartzeko parada izan zuen. Udaberria bikaina izan zen». Udan, berriz, kezka sortu zen, uztaila eta abuztua oso euritsuak izan zirelako, baina lasaitu ederra hartu zuten irailak eguzkia ekarri zuenean. Zaporeari dagokionez, «orekatua da, atsegina eta behin probatuta, errepikatze gogoan pizten du», esan zuen Goñik.

**HERRIKO OSPAKIZUNA, DOMEKAN**

Atzokoaz gain, domekan ere ekitaldi asko prestatu dituzte herrian; besteak beste, mendirteera, baserriarren azoka, artisauek, bakailao lehiaketa, zaldi ibilaldiak, bertsolariak eta abere probak egongo dira.

Hemendik aurrera, sagardoaz gozatu baino ez da egin behar. Jaramon egin diezaiogun, beraz, Sebastian Lizasok atzo proposatutakoari: «...ezezagunak lagun bihurtu, ezezagunak ezagun, amestutako unea heldu da, edanaz ospa dezagun».

**DENON ARTEAN  
EUSKAL HERRIA  
AURRERA**

Urtarrilak 18 Larunbata  
gaueko 9etan  
Oreoretako Frontoian  
**AFARI HERRIKOIA**

Sarreraren salmenta:

Oiartzun - Herriko Taberna, Amazlar,  
Oreoretako - Landare, Arkaitz, Sindikato,  
Lezo - Triñelu,  
Pasala - Kamio, Antxoak

Prezioa: 15€

Antolatzaileak: Oarso eskualdea (Gizaria, Landare,  
Triñelu, Estorri, Antxoak, Triñiker)